

BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

759

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 25ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, elkartegintza sustatzeko eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan parte hartzeko, 2012ko ekitaldian emango diren diru-laguntzak arautzen dituen.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea –benetakoa eta eraginkorra–, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren eta gizartearen esparru guztietan. Emakunderen helburuak dira beraz, sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea; berdintasun hori –izatez eta zuzenbidez– osotasunez garatzeko dauden oztopoak kentzea; eta emakumea baztertzeko edozein modu deuseztatzea Euskadin.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, 24.3 artikuluan, EAEko herri-administrazioei eskatzen die susta ditzatela emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduerak egiten dituzten elkarteak, eta emakumearen autonomia bultzatu eta emakumeen estatus soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzea helburu dutenak.

Bestalde, 4/2005 Legeak 15.1 artikuluan xedatzen duenez, legealdi bakoitzean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du, non euskal herri-agintek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak jasoko diren, koordinatuta eta orokorki. Aipatu artikuluan proposatutako eskakizunak betez, Jaurlaritzaren Kontseiluak «EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana / IX. Legealdirako Jarraibideak» plana onartu zuen, 2010eko ekainaren 29an.

Berdintasunerako V. Planaren egituran, berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko arloa dago, eta gero, IX. Legealdirako lehentasunezkoak diren hiru ardatz estrategiko daude: emakumeak ahalduntzea eta balioak aldatzea; antolaketa sozial erantzukidea eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko lana. Ardatzak programetan zehaztuta daude, eta programak, helburu estrategiko eta operatiboetan antolatuta.

Adierazi den bezala, aipatu planean emakumeen ahalduntzea eta balioak aldatzearen ardatz estrategikoa dago, hiru programetan zehaztuta. Programa horietako bat emakumeen eraginarekin eta partaidetza soziopolitikoarekin loturik dago. Gizartearen eraikuntzan emakumeek osoki parte hartzeko eskubidea sustatzea eskatzen du horrek, eta horretarako, beharrezkoa da emakumeen eta emakume-elkarteen partaidetza eta eragina indartzea bizitzaren eremu guztietan, parte hartzeko prozesuetan eta erabaki-guneetan, besteak beste. Horregatik, emakunde-emakumearen euskal erakundearen ustez, beharrezkoa da emakumeen elkartegintzari laguntzen jarraitzea. Izan ere, emakumeen sustapena xede duten emakume-elkarte, federazio eta fundazioek –egiten dituzten jardueren bidez– zuzenean eragin dezakete emakumeek euskal gizartean izango duten parte-hartzean eta sustapenean.

Horrenbestez, 4/2005 Legearen 24.3 artikuluan ezarritakoa betez eta Berdintasunerako V. Planaren esparruan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aurreikusita dauka irabazi-asmorik gabeko elkarte eta federazioei eta fundazioei diru-laguntzak ematea 2012ko ekitaldian. Horien jardute-eremu eta helburu bakarra izango da emakumeen sustapena, emakumeen

garapenari eta jardueri laguntzea; emakumeen ahalduntzea eta emakume-elkarteen; eta pixkanaka emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua lortzea. Horretarako arautzen da diru-laguntzen deialdia, publizitate, lehia eta objektibotasun irizpideen arabera. Hala ere, aurreko ekitaldietan egin zen bezala, orain arte aurkeztu diren proiektuen ezaugarriak ikusita eta kontuan hartuta gero eta elkarte sortu berri gehiagok parte hartzen duela, baliabide ekonomikoak zuzentasunez banatuko ditugu betekizunak betetzen dituzten elkarte eta federazio guztien artean.

Formari dagokionez, berrikuntza bezala, izapideak bide elektronikoz egiteko aukera ematen da aurten. Aipatu bidea arau hauetan dago arautua: abenduaren 18ko 232/2007 Dekretua, administrazio-prozeduretan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duena; apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa; eta 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariarena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– ezartzen duen dokumentua onartzeko dena.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da irabazi-asmorik gabeko emakumeen elkarte eta federazioei eta xede eta jardute-eremu bakarra emakumeak sustatzea duten fundazioei Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak emango dizkien diru-laguntzak arautzea. Erakundearen xede eta helburuei loturiko proiektu zehatzak egin beharko dituzte 2012ko ekitaldian, hurrengo artikuluek xedatutakoari jarraiki eta Erakundearen aurrekontuaren IV. kapituluan ezarritako kreditu-mugetatik atera gabe.

2. artikulua.– Diru-baliabideak.

Erakundearen aurrekontuetan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira aurreko artikuluan adierazitako xedeak lortzeko diru-baliabideak. Zenbatekoa, hasieran behintzat, hirurehun eta hoge mila (320.000) eurokoa izango da.

3. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura eta diru-zenbatekoaren zehaztapena.

1.– Aurkeztutako laguntza guztiak aldi berean esleituko dira, ekitaldi berean, norgehiagoka-lehiaketaren teknika erabilita. Izan ere, programaren helburua da eskabideak garaiz eta behar den eran aurkezten dituzten elkarte guztiei ematea diru-laguntzak, baldin eta ebazpen honetan onuradun izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen badituzte.

Horretarako, garaiz eta behar den eran aurkeztutako eskaerak aztertuz esleituko dira laguntzak. Onartzen den aurrekontuaren % 100 finantza daiteke, 10. artikuluan zehaztutako irizpideei eta manu horren 4. paragrafoan jarritako baremoei jarraiki, eskaera bakoitzari 12.000 euro emanez, gehenez ere. Hor, programatutako ekintza guztiak sartuko dira.

2.– Aurreko lerroaldean aipatutako aurrekontua onartzeko, besteak beste irizpide hauek hartuko dira kontuan:

– Diruz lagun daitezkeen gastutat joko dira funtzionamendu-gastu arruntak ez diren kostuak, jarduera egiteko beharrezkoak direnak.

– Ebazpen honetan zehaztutako araubidearen babesean, diruz lagun daitezkeen gastutzat jotzen dira funtzionamendu-gastu arruntak, hain justu ere, erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta zehaztuan azaltzen direnak eta jarduera garatzearekin zuzeneko lotura dutenak. Gastu horiek ezingo dute gainditu proiektuari guztira emandakoaren % 30.

– Soil-soilik lagundutako proiektua garatzen –eta ez beste ezertan– diharduten pertsonen soldata eta lansariak baino ez dira sartuko.

– Diruz lagun daitezkeen gastutzat ezingo da jarri BEZ kengarriaren zenbatekoa, erakunde eskatzailea zerga horren aitortpena egitera behartuta badago. Inbertsio-gastuak ere ez dira lagunduko.

3.– Erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan, artikulua honen arabera diruz lagundu ezin diren gastuak agertzen badira, Hautaketa Batzordeak ez ditu zenbatuko diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontua zehazterakoan; izan ere, aurrekontu hori hartuko da kontuan ebazpen-proposameneari diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko.

4.– Diru-laguntzaren zenbatekoa, baremo hauen arabera kalkulatu da:

– Eskatutako diru-zenbatekoaren % 100 arte, esleipen-irizpideen arabera 91 eta 100 puntu artean lortzen dutenentzat.

– Eskatutako diru-zenbatekoaren % 90 arte, esleipen-irizpideen arabera 81 eta 90 puntu artean lortzen dutenentzat.

– Eskatutako diru-zenbatekoaren % 80 arte, esleipen-irizpideen arabera 71 eta 80 puntu artean lortzen dutenentzat.

– Eskatutako diru-zenbatekoaren % 70 arte, esleipen-irizpideen arabera 61 eta 70 puntu artean lortzen dutenentzat.

– Eskatutako diru-zenbatekoaren % 60 arte, esleipen-irizpideen arabera 51 eta 60 puntu artean lortzen dutenentzat.

– Eskatutako diru-zenbatekoaren % 50 arte, esleipen-irizpideen arabera 41 eta 50 puntu artean lortzen dutenentzat.

– Eskatutako diru-zenbatekoaren % 40 arte, esleipen-irizpideen arabera 31 eta 40 puntu artean lortzen dutenentzat.

5.– Aurreko atalean zehaztutakoari jarraiki diru-laguntzen zenbatekoa kalkulatu ondoren, deialdi honetarako ezarritako aurrekontua horiek guztiak emateko iristen ez bada, hasieran kalkulatuako diru-laguntzen zenbatekoen araberrako proportzioan hainbanatuko da deialdiaren zenbateko guztia.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Ebazpen honek araututako diru-laguntzak Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen aplikazio-eremuko irabazi-asmorik gabeko elkarte eta federazioek eska ditzakete, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen aplikazio-eremuko fundazioek, baldin eta helburu eta jarduteko eremu bakarra emakumeen sustapena badute. Beharrezkoa izango da jarduera Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan garatzea eta egoitza soziala ere Euskal Autonomia Erkidegoan edukitzea.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren organo autonomoek emandako izaera bereko laguntzei edo diru-laguntzei dagokienez, itzulketa- edo zehapen-prozeduraren bat hasita badago eta oraindik izapidetzen ari bada, aipatu prozedura amaitzea ezinbestekoa izango da diru-laguntzak ordaindu ahal izateko.

5. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– «EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana/IX. Legealdirako Jarraibideak» planaren esparruan eta Erakundearen helburuei jarraiki, diruz lagunduko diren proiektuak edo jarduerak 2012ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egin beharko dira, eta honako hauek egiteko izango dira:

a) Emakumeen eskubideak, emakume-mugimenduaren historia eta pentsamendu feminista zabaltzeko programak, eta emakumeen erreferentziak eta genealogiak sortzekoak.

b) Emakumeen elkarte-mugimendua dinamizatu, motibatu eta bultzatzeko jarduera-programak, hain zuzen ere emakumeak ahalduntzen laguntzen dutenak eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten emakume-elkarteen sareak sortu, sustatu eta indartzen dituztenak.

c) Jardueren bidez, emakumeek politika, ekonomia, gizarte eta kulturaren arloetan parte hartzea sustatuko duten programak, emakumeen elkarteak bultzatzekoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko elkarten arteko mugimenduak koordinatzekoak.

d) Gizartea emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz sentsibilizatzeko eta horri buruzko informazioa emateko programak, eta informazio-baliabideetan eta komunikabideetan emakumeen eta gizonen irudi berdinzalea, plurala eta estereotiporik gabea sustatzen duten ekimenak.

e) Etxeko lanetan eta arduetan eta zaintza-lanetan gizonen erantzukidetasuna sustatzen duten programak, norberarentzat, aisialdirako, familiarako eta lanerako dugun denbora arrazionaltasun eta berdintasun handiagoz banatzea helburu dutenak.

f) Berdintasunari buruzko prestakuntza-programak, hainbat eremutarako: hezkuntza, kultura, kirola, prestakuntza-enplegua, osasuna, gizarte-partaidetza, eta abar.

Eskulangintza-proiektuak (eskulanak, artisautza, sukaldaritza, etab.), diru-laguntzak jaso ahal izateko, beste jarduera batzuekin osatu beharko dira, hain zuzen ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko sentsibilizazio-, informazio- edo trebakuntza-jarduerekin.

2.– Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Aisialdirako baino ez diren jarduera-proiektuak.

b) Beste entitate batzuei eskainiko zaizkien zerbitzu eta ekintzak finantzatzeko proiektuak.

c) Genero-ikuspegirik gabeko proiektuak.

6. artikulua.– Eskabideak formalizatzea eta aurkezteko epea, eta izapidetze elektronikoa.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2.– Eskabideak aurrez aurre aurkez daitezke, I. ereduaren arabera, guztia beteta eta hurrengo artikuluan adierazitako dokumentazioarekin batera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde zuzendariaren aurrean (Manuel Iradier 36, 01005 Vitoria-Gasteiz), edo Herri Administrazioen

Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoetan. Euskadi.net-en egoitza elektronikoa honetan eskura daiteke eskabide-eredua: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20030/es/contenidos/ayuda_subvencion/ayuda_asociaciones_mujeres/es_ayuda/ficha_procedimiento.html

Posta-bulegoaren bidez aurkezten diren eskabideak kartazal irekian jarri beharko dira, egiaztatu aurretik posta-zerbitzuko funtzionarioek eguna eta zigilua jartzeko. Hala egin ezean, eskabidea dagokion bulego publikoan noiz sartzen den, egun horretan aurkeztutzat joko da.

3.– Halaber, prozedura honen izapide guztiak egiteko, kontsultatzeko eta eskatzeko, entitateek bide elektronikoa erabili ditzakete. Horrela, eskabideak bide elektronikoz aurkezteko, euskadi.net-eko egoitza elektronikoa hau dago: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20030/es/contenidos/ayuda_subvencion/ayuda_asociaciones_mujeres/es_ayuda/ficha_procedimiento.html.

Eskabidearen osteko izapideak bide elektronikoz egiteko: <http://www.euskadi.net/misgestiones>.

4.– Eskabidea izapidetzeko eta dokumentazioa aurkezteko bideak –aurrez aurrekoa edo elektronikoa– ez dakar bide hori erabili beharra prozeduraren hurrengo izapideetan, edozein unetan alda baitaiteke bidea.

5.– Entitate eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurki ditzakete, nahi duten eran. Erakundeak hautatutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

7. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabideekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

1.– Orokorrean, eskatzaile guztiek aurkeztu beharrekoak:

1.1.– Eskabide-eredua, I. eranskinaren arabera, erantzukizunpeko adierazpenak eta adostasunak dituela, honako hauek egiaztatuzko:

– Entitate eskatzailea legez eratuta eta erregistratuta dagoela elkarten edo fundazioen erregistroan.

– Elkarte eskatzailearen edo federazio eskatzailea osatzen duten elkarten estatutuetan emakume izatea eskatzen dela kide izateko betekizunen artean.

– Fundazio eskatzailearen xede eta jardute-eremu bakarra emakumeen sustapena dela.

– Entitate eskatzaileak dagokion kide kopurua duela egun.

– Entitate eskatzailea beste administrazio publiko batetik edo entitate pribatuen batetik xede edo helburu bererako laguntzaren bat jasotzen ari den eta/edo halakorik eskatu duen eta onartu zaion, edo eskabidea artean ebatzi gabe dagoen.

– Entitate eskatzaileak ez duela diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion administrazio-zehapen edo zehapen penalik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere.

– Entitate eskatzaileak ez duela administrazio-zehapen edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egiteagatik, eta bestetik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005

Legearen arabera ez zaiola debekurik jarri ebazpen honetan araututako laguntzak eskatzeko (4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa).

– Entitate eskatzailea ez dagoela itzulketa-edo zehapen-prozeduraren baten baitan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta horren organo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzei dagokienez, artean prozedura izapidetzen ari dela.

– Entitate eskatzaileak adierazten duela eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla, eta laguntza hauen onuradun izateko, indarrean den araudian ezarritako betekizunak konplitzen dituela.

– Entitate eskatzaileak egunean dituela indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, erregelamenduz zehazten den eran.

– Deialdi hau kudeatzen duen organoari emandako baimena: nortasun-datuak eta Datuen alta/Hirugarren Interesdunaren datuak eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak administrazio eskudunean bide elektronikoan bitartez edo aukeran dauden baliabideen bitartez begiratzeko, egiaztatze edo frogatzeko baimena, hain zuzen ere.

1.2.– Entitate eskatzailearen datuak, II. eranskinaren arabera.

1.3.– 2012ko abenduaren 31 baino lehen egin beharreko jardueren programa. Diruz lagundu nahi den jarduera bakoitzeko, III. eranskina (osorik) bete beharko da.

1.4.– Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko prestakuntza eta/edo esperientzia egiaztatzen duen dokumentazioa, 10.1 artikuluan jasotako irizpideak egoki baloratzeko.

1.5.– Egiaztagiria eguneratua, dagokion foru ogasunak egina, gehienez jota eskabidearen egunaren aurreko hiru hil lehenago egina, zerga-betebeharrak ordainduta daudela egiaztatze, artikuluko honen 1.1 ataleko azken paragrafoan jasotako baimena ematen denean salbu. Zor bat atzeratzea lortzen duen elkarte, federazio edo fundazioak ordainketak eguneratuta dauzkala joko da, atzeratutako zorrari dagokiona agiri bidez egiaztatzen badu, ebazpen honen 7.1.1 artikuluko azken atalean jasotako baimena ematen denean salbu.

1.6.– Gizarte Segurantzaren egiaztagarria, enpresa-kuotak ordainduta daudela egiaztatze –proiektua egiteko langileak kontratatuz gero–, artikuluko honen 1.1 ataleko azken paragrafoan jasotako baimena ematen denean salbu.

1.7.– Esleipen-irizpideak egiaztatzea ahalbidetzen duten gainerako agiri guztiak.

2.– Lehenagoko diru-laguntzetan dokumentazio hau aurkeztu ez dutenentzat edo diru-laguntzan aldaketak egiten direnerako:

2.1.– Identifikazio Fiskaleko txartelaren fotokopia, artikuluko honen 1.1 ataleko azken paragrafoan jasotako baimena ematen denean salbu.

2.2.– «Datuen alta/Hirugarren interesduna» inprimakia. Inprimaki hori eskuratzeko helbidea: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/es/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/alta_terceros.html.

2.3.– Egiaztagiria, dagokion foru ogasunak egina, erakunde eskatzailea BEZaz salbuetsita dagoela egiaztatze.

3.– Emakunden dauden agiriak ez dira berriz aurkeztu beharko. Horrelakoetan, agiriak noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren adierazi beharko da eskabidean, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35.f) artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.– Administrazioak, edozein unetan, jatorrizko dokumentazioa entregatzeko eska dezake, kautotasuna egiaztatzeko.

8. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzarako eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo 7. artikuluan eskatutako agiriren bat falta badute, Emakundek falta den agiria aurkezteko edo antzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio eskatzaileari, eta hamar eguneko epea emango dio (jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera zenbatzekoa). Horrez gain, eskatutakoa egin ezean, eskaera ezetsi egingo dela ohartaraziko zaio eskatzaileari; ezesteko, aurretiaz ebazpena emango da, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan agindutakoari jarraiki.

9. artikulua.– Hautaketa eta Jarraipen Batzordea.

1.– Hautaketa eta Jarraipen Batzordea osatuko da aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzeko eta emandako diru-laguntzen jarraipena egiteko. Deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, eta ondoren, esleipen-proposamen arrazoitua aurkeztuko dio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, laguntzak emateko ebazpena hartzeko; gero, justifikazioari dagokion jarraipena egingo du.

2.– Hautaketa eta Jarraipen Batzordeko kideak:

Presidentea: Idazkari nagusia.

Epaimahaikideak:

- Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna.
- Generoaren arloko Plangintza eta Ikerketaren arduraduna (programa eta prestakuntza arloa).
- Aholkularitza Juridikoko Arlo-arduraduna.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko teknikari bat.

Idazkaria: Aholkularitza Juridikoaren arduraduna.

10. artikulua.– Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

1.– Diru-laguntzak esleitzeko, Hautaketa Batzordeak irizpide hauek hartuko ditu kontuan, bakoitzari emandako puntuen arabera:

a) Programaren kalitate teknikoa. 45 puntu, gehienez.

– Helburuak eta ekintzak argiak, bideragarriak eta diruz lagun daitezkeen jarduerekin eta V. Planarekin bat datozenak izatea. 15 puntu, gehienez.

– Baliabide, metodologia eta ebaluazioren egokitasuna. 15 puntu, gehienez.

– Elementu berritzaileak. 5 puntu, gehienez.

– Proposamenaren kalitatea, osotasunean. 10 puntu, gehienez.

- b) Programaren gizarte-onura eta eragin biderkatzailea. 40 puntu, gehienez.
- Hartzaile kopurua eta lurralde-eremua. 5 puntu, gehienez.
 - Beste elkarte batzuekin sare-lana egitea. 5 puntu, gehienez.
 - Zein kolektiborentzat den. 5 puntu, gehienez.
 - Hedapen-tresnak. 5 puntu, gehienez.
 - Programan askotariko bereizkeria kontuan hartzea. 10 puntu, gehienez.
 - Aurreko deialdian diruz lagundutako proiektuak baloratzea, Hautaketa eta Jarraipen Batzordeak aldeko txostena egin dienak, jarraikortasuna, lurralde-eremua eta beste alderdi nabarmen batzuk kontuan hartuta. 10 puntu, gehienez.
- c) Irisgarritasunaren eta bateragarritasuna ahalbidetzen duten elementuen sustapena. 10 puntu, gehienez.
- Zailtasun bereziak dituztenentzat irisgarritasuna ahalbidetzen duten elementuak. 5 puntu, gehienez.
 - Bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa uztartzea ahalbidetzen duten elementuak. 5 puntu, gehienez.
- d) Euskara eta gaztelania erabiltzea jardueraren publizitatean edo garapenean. 5 puntu, gehienez.
- 2.– Diru-laguntza jasotzeko, proiektuek 31 puntu lortu behar dituzte, gutxienez.
11. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.
- Deialdi honetan ezarritako diru-laguntzak bateragarriak dira gainerako erakunde publiko edo pribatuek helburu berarekin ematen dituztenekin, baldin eta gainfinantzaketarik ez badago. Gainfinantzaketa gertatuz gero, dagokion gehienezko mugaraino murriztuko da diru-laguntza.
12. artikulua.– Ebazpena.
- 1.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak hartuko esleipen-ebazpenak amaitu egingo du prozesua, eta emandako eta atzera botatako laguntzak adieraziko ditu. Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei. Emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.
- 2.– Eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilekoa izango da gehienez ere, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Epe horretan erakunde interesdunari ebazpenik jakinarazi ez bazaio, diru-laguntzarako eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).
- 13.a) artikuluan zehaztutako epean norbaitek laguntzari uko egiten badio, dotazioaren soberakina elkarte onuradunen artean banatuko da, proportzioan, ebazpen honen 3.4 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Ebazpen honetan arautzen diren diru-laguntzen erakunde onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartu behar dute. Horrela, diru-laguntza eman zaiela jakinarazteko idazkia jaso eta hamabost eguneko epean pertsona edo erakunde onuradunek diru-laguntzari beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badiote, diru-laguntza onartu egin dutela esan nahiko du.

b) Diru-laguntza zertarako eman den, xede horretarako erabili behar dute, non eta 15. artikuluan ezarritakoa aplikatzen ez den, eta diruz lagunduko diren jarduerak Emakundek noiznahi egiaztatzea onartu beharko dute.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzen inguruan eskatutako informazioa eman behar diete.

d) Diruz lagundutako jardueretan aldaketak egiteko, idatziz jakinarazi beharko dute, Erakunde Zuzendaritzaren berariazko onespena beharrezkoa baita aldaketak egiteko.

e) Diruz lagundutako jardueren publizitatea egiterakoan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen lankidetzara adierazi beharko da. Horretarako, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen marka jarri beharko da, zeina dagokion partaidetza-mailaren arabera adierazi, kokatu eta erakutsi beharko den hedatu beharreko publizitate-euskarrian, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz. Marka Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egoitzan eska daiteke. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen logotipoa beti jarri behar da diruz lagundutako proiektutik ateratzen den dokumentuan. Jardueraren edukiak bere gain hartzen dituen elkarte, federazio edo fundazioa dela adierazi behar da jardueraren publizitatean edo diruz lagundutako argitalpenetan.

14. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea eta ordaintzea.

1.– Diru-laguntza zatika ordainduko da: ehuneko hirurogeita hamabost, 13.a) artikuluan aipatutako epea igaro ondoren –uko egin gabe–, eta gainerakoa, ehuneko hogeita bost, diruz lagunduko jardueretan sortutako gastu guztiak justifikatu ondoren; bigarren zatia ordaintzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira 2013ko otsailaren 28ra arteko epean (egun hori barne):

– Jasotako funts publikoak zertan erabili diren justifikatzeko memoria. Memoria horretan, proiektuan aurreikusitako egutegia kontuan izanda, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak deskribatuko dira (IV. eranskina).

– Diruz lagundutako jardueratik ateratako produktua, halakorik balego.

– Balantze ekonomikoa, diruz lagundutako jarduera bakoitzeko (IV. eranskineko ereduaren arabera).

– Diruz lagundutako gastua egin dela justifikatzen duten fakturak edo agiriak edo Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak konpultsatutako fotokopiak; kasu horretan, Emakundek jatorrizko fakturei zigilua jarriko die, eta, ondoren, erakunde interesdunari itzuliko dizkio; funtsak behar bezala erabili direla egiaztatzeke behar beste xehetasun eman beharko da. Faktura edo dokumentuetan jasotako gastuaren data 2012ko abenduaren 31 izango da gehien jota. Justifikazioa bide elektronikoz izapidetzen bada, jatorrizko dokumentazioa eskaneatuta eta elektronikoki sinatua bidaltzea onartuko da.

– Soil-soilik lagundutako proiektua garatzen –eta ez beste ezertan– diharduten pertsonen soldata eta lansariak justifikatzeko agiriak.

– Funtzionamendu-gastu arrunten egiaztagiriak; gastu horiek erakunde eskatzaileak aurkeztutako jardueraren aurrekontu banakatu eta xehatuan agertu behar dira, eta jardueraren garapenari lotuak egon behar dute ezbairik gabe.

– Diruz lagundutako jardueren publizitatean Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen lankidetzat agertu dela eta elkarteek edo federazioek jarduerak bere gain hartu dituztela egiaztatzen duten egiaztagiriak.

– Erakunde jasotzaile bakoitzeko, 3.000 eurotik gora ematen diren diru-laguntzetan: egiaztagiri eguneratua, zerga-betebeharrak ordainduta daudela egiaztatzeko; dagokion foru ogasunak egin beharko du, artikulua honetan jasotako agiriak aurkeztu aurreko hiru hil lehenago –gehien jota–, ebazpen honen 7.1.1 artikulua azken atalean jasotzen den baimena eman denean salbu.

2.– Proiektuaren behin betiko kostu osoa gutxitzen bada, diru-laguntza kalkulatzeko kontuan hartu zen kostuari dagokionez, edo gastua egiaztatzeko agirien bidez (fakturak, ordainagiriak, etab.) justifikatzen den zenbatekoa emandako laguntza baino txikiagoa bada, dagokion zati proportzionala kenduko zaio diru-laguntzaren zenbatekoari.

15. artikulua.– Diru-laguntza emateko inguruabarrak aldatzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan izandako inguruabarren bat aldatzen bada, Emakundeko Zuzendaritzari jakinarazi behar zaio. Diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu egin daiteke, baldin eta diru-laguntza emateko kontuan izan diren inguruabarrak aldatu badira (betiere, diru-laguntzaren helburua bete bada) eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk aldi berean laguntzarik edo diru-laguntzarik eman badu.

2.– Aurreko artikuluan aipatutako agiriak edo, bestela, artikulua honetako aurreko zatian aipatutakoak jaso, eta agiriak aztertu eta ebaluatu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak emandako diru-laguntza aldatu eta/edo likidatuko du, administrazio-bidea amaitutzat emango duen ebazpen baten bidez; horrez gainera, diru-laguntzen zenbatekoak egokituko ditu –hala behar denean–, itzuli beharreko zenbatekoa zehaztuko du –hala badagokio– eta 15 eguneko epea emango du dirua itzultzeko.

16. artikulua.– Ez-betetzeak.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetako bat edo batzuk betetzen ez direla egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta zenbateko horri dagozkion legezko interesak itzuli egin beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horretaz gain, dagozkion gainerako ekintzak gauzatuko dira.

17. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

Ezarritako baldintzak edota betebeharrak betetzen ez direnean, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan agindutako prozedurari jarraituko zaio emandako diru-laguntza itzultzeko. Dekretu horrek hau ezartzen du:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak prozeduraren hasiera eta prozedura funtsatzeko arrazoiak jakinaraziko dizkio erakunde interesdunari, eta 15 egun balioduneko epea emango dio alegazioak aurkezteko.

b) Alegazioak jaso ondoren edo alegaziorik egin gabe epea amaitu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak amaitutzat joko du prozedura, ebazpen baten bidez. Ebazpen horrek administrazio-bidea amaituko du.

Ebazpenean baldintzak bete ez direla adierazten bada, galdutzat joko da diru-laguntza jasotzeko eskubidea, eta, beharrezkoa bada, jasotako zenbatekoak eta aplikatzekoak diren legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzultzeko aginduko da. Dirua hil biko epean itzuli beharko da, jakinarazpena egiten den egunetik hasita. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

c) Borondatezko aldian itzulketarik egiten ez bada, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko organo eskudunari jakinaraziko zaio, premiamendu-bideari ekin diezaion, aplikatzekoa den legezko araudian xedatutakoari jarraituz.

d) Aplikatzekoak diren arauak ez betetzeagatik diru-laguntzak itzultzeari buruz artikulua honetan araututako prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilekoa izango da, gehienez ere.

18. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Deialdi honetan parte hartzen duten lagunen datu pertsonalak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen fitxategi automatizatu batean sartuko dira, datuen tratamendua egiteko. Fitxategi hori Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakora lotuta dago eta Erakundeak sustatzen dituen laguntzak kudeatzeko baino ez da erabiliko. Interesdunek eskubidea dute datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko, Legearen arabera. Eskubide horiez baliatzeko, idazki bat bidali beharko diote fitxategiaren arduradunari, hots, Azterlan, Plangintza eta Dokumentazio Arloari: Manuel Iradier kalea, 36, 01005 Vitoria-Gasteiz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Aurka egiteko, pertsona edo entitate interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean (ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera); bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean (ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera).

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 25a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

2012ko otsailaren 17a, ostirala

I. ERANSKINA

ELKARTEGINTZA SUSTATZEKO ETA EMAKUMEEK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ESPARRU GUZTIETAN PARTE HARTZEKO, 2012KO EKITALDIAN EMANGO DIREN DIRU-LAGUNTZAK

Izartxoak (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA *

1

 Titularra Ordezkarria

DATU PERTSONALAK

TITULARRA

Izena / Erakundearen izendapena *

Dokumentu Mota *

Lehen Abizena *

Bigarren Abizena *

Zenbakia * -

LETRA

Tel. Finkoa

Tel. Mugikorra

Sexua * Gizona Emakumea

ORDEZKARIA

Izena / Erakundearen izendapena

Dokumentu Mota

Lehen Abizena

Bigarren Abizena

Zenbakia -

LETRA

Tel. Finkoa

Tel. Mugikorra

Sexua Gizona Emakumea

JAKINARAZPENA *

2

 Elektronikoa Posta bidez

POSTA-ONDORIOETARAKO (Posta bidezko jakinarazpenetarako soilik) *

Herrialdea *

Helbidea *

Zk ____ Pisua ____ Letra ____

PK *

Udalerrria *

Lurraldea *

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOETAKO ABISUA

3

Posta elektronikoa (puntu eta koma (;) bitartez bereziak)

Mugikorraren telefono zenbakia (puntu eta koma (;) bitartez bereziak)

2012ko otsailaren 17a, ostirala

JAKINARAZPENAK ETA OHARRAK ZEIN HIZKUNTZATAN JASO NAHI DITUZUN * Euskera Gaztelania**BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK****Titularraren betebeharraren fiskalen informazioa duen Zerga Administrazioaren Lurraldea / Probintzia ***

ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENAK Ordezkatzen dudana erakundeak ez dela inolako administrazio publiko edo erakunde pribatuaren laguntzarik jasotzen ari helburu bererako. Ordezkatzen dudana erakundeak administrazio publiko edo erakunde pribatuaren bati laguntza bat eskatu diola eta eman egin diotela (atal honen datuak III. eranskinean zehaztu behar dira). Ordezkatzen dudana erakundeak administrazio publiko edo erakunde pribatuaren bati laguntza bat eskatu diola, eta ebazpenaren zain dagoela (atal honen datuak III. eranskinean zehaztu behar dira). Ordezkatzen dudana elkarteak bazkide kopuru hau duela gaur egun: _____ Elkarte eskatzailearen edo federazio eskatzailea osatzen duten elkarten estatutuak emakume izatea eskatzen dela kide izateko betekizunen artean. Fundazio eskatzailearen xede eta jardute-eremu bakarra emakumeen sustapena dela. Ordezkatzen dudana erakundeak ez dagoela sartuta itzultze- edo zehapen-prozedura batean, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta beren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan.

Erakunde eskatzailea legez eratu eta erregistratu dagoela erregistro honetan: *

_____ data *

Ordezkatzen dudana erakundeak ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko zehapen administratibo edo penalik, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion lege-debekurik, berriazko erreferentzia eginez sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik jarritakoei, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Seigarren Azken Xedapenean xedatutakoarekin bat etorritik.

Ordezkatzen dudana erakundeak eguneko dituela indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, erregelamenduz zehazten den eran.

Egiazkoak direla eskabidean eta erantsitako agirietan jasotako datuak.

Ordezkatzen dudana erakundeak betetzen dituela indarreko araudian laguntza hauen onuradun izateko ezarritako baldintzak.

ADOSTASUNAK

Nortasun-datuak

- Deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen diot datuak administrazio eskudunean bide elektronikoen bitartez edo aukeran dauden baliabideen bitartez begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak

- Deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen diot administrazio eskudunean bide elektronikoen bitartez edo aukeran dauden baliabideen bitartez begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko.

Hirugarrenaren alta

- Deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen diot administrazio eskudunean bide elektronikoen bitartez edo aukeran dauden baliabideen bitartez begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko.

DATU PERTSONALEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, **Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak** jakinarazten dizu eman dituzun datuak, eskabidean agertzen direnak, **Emakunderen Pertsonen Erregistroa** izeneko fitxategian sartu direla, zeina **2003ko uztailaren 1eko Aginduaz** arautu baitzen. Fitxategia laguntza espedienteak kudeatzeko erabiliko da, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi ondoren. Fitxategiak behar adina segurtasun-neurri ditu datuen erabateko segurtasuna bermatzeko. Legezko kasuetan izan ezik, datuok ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko.

Datu pertsonalen babesari buruzko arautegiaren arabera, datuak ikusteko, ezabatzeko, zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak balia ditzakezu, berriaz onartuta baitago DBLOan. Horretarako, **Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundera** jo behar duzu (Manuel Iradier, 36, 01005 Vitoria-Gasteiz).

Administrazio Publikoak aurkeztu diren datuak erka ditzake eta behar diren egiaztapenak egin ditzake laguntzak zuzen esleitzeko.

_____ (e)n _____ (e)an

(Titularren edo ordezkariaren sinadura)

AGIRIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

1 ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA

Eskatzaileak bere izenean jokatzeko badu, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Titularra" aukeratu behar du eta "DATU PERTSONALAK" atalean Titularri dagozkion datuak bete. Eskabidea titularrak sinatu behar du.

Eskatzaileak beste pertsona baten ordezkari gisa jokatzeko badu, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkarria" aukeratu behar du eta, "DATU PERTSONALAK" atalean, titular bezala, ordezkatzeko duen pertsonaren datuak bete behar ditu, eta bere datuak, Ordezkarriaren atalean. Eskabidea ordezkariak sinatu behar du.

Pertsona juridikoek, beti jarduten dute ordezkari gisa; beraz, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkarria" aukeratu behar du, eta "DATU PERTSONALAK" atalean, titular bezala, ordezkatzeko duen erakundearen datuak bete behar ditu, eta bere datuak, Ordezkarriaren atalean. Eskabidea ordezkariak sinatu behar du.

2 JAKINARAZPENEA

Eskatzaileak jakinarazpenak nola jaso nahi dituen aukera dezake: postaz edo bide elektronikoz.

POSTAZ: "POSTA" atalean adierazten den posta-helbidera bidaliko dira jakinarazpenak.

BIDE ELEKTRONIKOA: eskatzaileak "Nire gestioak" ataleko jakinarazpen-erretiluan jasotzen ditu jakinarazpenak (www.euskadi.net/nirekudeaketak). "Nire gestioak" atalean sartzeko, beharrezkoa izango da eskatzaileak indarrean dagoen ziurtagiri elektronikoa izatea (ONA, NANE, Herritar Ziurtagiria, Erakunde Ziurtagiria, FNMT, ...).

3 JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOETAKO ABISUA

Eskatzaileak jakinarazpen elektronikoa jasotzea erabaki badu, administrazioak posta elektronikoa edo mugikor bidezko zerbitzu bat eskaintzen dio, jakinarazpen bat bidaltzen dion bakoitzean abisatzeko.

Nahi adina posta elektronikoa edota mugikor zenbaki idatz dezakezu, kasu bietan datu bakoitza puntu eta koma (;) bitartez bereiziz.

II. ERANSKINA

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK - DOKUMENTAZIOA

Izartxo batekin (*) markatutako datuak nahitaezkoak dira

ZEIN ERREGISTROTAN / ERROLDATAN EMAN DUZUN IZENA

Erregistroaren / erroldaren izena: * _____

Erregistro-data: * _____ Erregistro-zk.: * _____

Estatutuen onartzeko prozedurak, betekizunak eta bazkide-motak aizpatzen diren kapitulua hitzez hitz kopiatu: *

Estatutuetan onarpen bideak, baldintzak eta mailak aipatzen diren kapitulua hitzez hitz kopiatu. *

ZUZENDARITZA BATZORDEAREN OSAERA *

Kide anitzeko gobernu-organoa/zuzendaritza batzardea-eskabidearen datan indarrean dagoena eta erregistroan edo erroldan erregistratuta dagoena-osatzen duten kideak: (hitzez hitz kopiatu, izenak eta karguak adieraziz. Erakundearen estatutuetan kide anitzeko gobernu-organo bat egotea aurreikusi gabe badago, presidentzian, idazkaritzan eta diruzaintzan daudenen izenak eta karguak adierazi):

Izena	Kargua
	Presidentea

2012ko otsailaren 17a, ostirala

BESTE FINANTZAZIO-ITURRI BATZUK

Beste finantzazio-iturririk izan duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zeintzuk?	Emandako zenbatekoa	Eskatutako zenbatekoa
Guztira		

Beste laguntzarik eskatu duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zein erakunderi?	Eskatutako zenbatekoa	
Guztira		

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA

Aurkezten diren dokumentuen zerrenda	
<input type="checkbox"/>	I. eranskina.- Elkartegintza sustatzeko eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan parte har dezaten sustatzeko diru-laguntzak (2012ko ekitaldia).
<input type="checkbox"/>	II. eranskina.- Erakunde eskatzailearen datuak - Dokumentazioa
<input type="checkbox"/>	III. eranskina.- Jarduera-proiektua
<input type="checkbox"/>	IV. eranskina - Justifikazio-memoria
<input type="checkbox"/>	Egiaztageria, dagokion foru ogasunak egin, erakunde eskatzailea BEZaz salbuetsita dagoela egiaztatzeko.
<input type="checkbox"/>	«Datuen alta/Hirugarren interesduna» inprimakia.
<input type="checkbox"/>	Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko prestakuntzaren fotokopia eta/edo esperientziaren egiaztageria.
<input type="checkbox"/>	Erakunde eskatzailearen estatutuak
<input type="checkbox"/>	Beste agiri batzuk
<input type="checkbox"/>	

Erakunde interesdunaren ordezkariaren sinadura

III. ERANSKINA

JARDUEREN PROIEKTUA

Erakunde eskatzailearen izena:

Jardueraren izena:

Jardueraren identifikazioa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Planean:

Esku hartzeko ardatzak:

Programak:

Programa mota, ebazpenaren 5. artikularen arabera:

Helburuak:

Proiektuaren jarduera zehatzak:

Metodologia:

Ebaluazio adierazleak/irizpideak:

Lortu nahi diren emaitzak:

2012ko otsailaren 17a, ostirala

Jarduera norentzat den: Jardueran zenbat pertsonak parte hartuko duten (aurreikuspena):

Jardueraren lurralde-eremua:

Tokikoa Lurralde Historikoa Autonomia Erkidegoa Jarduera egiteko tokia edo tokiak:

Jardueraren egutegia:

Ordu kopurua:

Hasiera-data: _____

Amaiera-data: _____

Jarduera hizkuntza honetan egingo da:

Euskara Gaztelania Euskara/Gaztelania Besterik

2012ko otsailaren 17a, ostirala

PROIEKTUAREN AURREKONTUA

Gastuak	
Hizlarien/Irakasleen gastuak	
Ordainsariak	
Ostatua	
Garraioa	
Besterik (zehaztu)	
Proiektuan baino ez diharduten langileen gastuak	
Ordainsariak	
Ostatua	
Garraioa	
Besterik (zehaztu)	
Material-gastuak	
Fotokopiak	
Material didaktikoak (liburuak, ikus-entzunezkoak...)	
Material-alkairua	
Beste material batzuk (zehaztu)	
Publizitatea	
Diseinuak eta logotipoak	
Horma-irudiak eta liburuxkak	
Prentsako eta irratiko iragarkiak	
Besterik (zehaztu)	
Jarduerak egiteko lokalak alokatzea	
Gastu arruntak	
Posta	
Telefonia eta faxa	
Besterik (zehaztu)	
Beste gastu batzuk (zehaztu)	
Gastuak guztira:	

2012ko otsailaren 17a, ostirala

Diru-sarrerak	
Elkarte/fundazioaren ekarpena	
Beste zenbait erakunderen ekarpena	
Eusko Jaurlaritza	
Foru Aldundia	
Udala	
Beste batzuk (zehaztu)	
Parte hartzaileen ekarpena	
Besterik (zehaztu)	
Emakunderi eskatzen zaion diru-laguntza	
Diru-sarrerak guztira:	

Proiektua betetzen duen pertsona/entitatearen datuak:

Harremanetarako telefonoa:

Posta elektronikoa:

Erakundearen ordezkariaren sinadura

IV. ERANSKINA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA

Erakunde eskatzailearen izena:

Jardueraren izena:

Jardueraren lurralde-eremua:

Tokikoa Lurralde Historikoa EAE

Parte-hartzaileen kopurua:

Jarduera-lekua:

Ordu kopurua:

Jardueraren egutegia:

Hasiera-data:

Amaiera-data:

Erabilitako hizkuntza:

Euskara Gaztelania Euskara/Gaztelania Besterik

Egindako jardueraren eta metodologiaren deskribapena:

Proiektuan planteatutako ebaluazio-irizpideen emaitzak (II. eranskina):

Lortutako helburuen baliospena:

2012ko otsailaren 17a, ostirala

Erabilitako metodologiaren baliospena:

Ondorioak:

Diruz lagundutako jardueratik ateratako produktua justifikatzen duen agiria erantsi, edozein euskarritan (ikastaro, jardunaldi edo kongresu baterako diseinatutako programa, egindako ikerketaren laburpena, argitalpena eta abar):

2012ko otsailaren 17a, ostirala

PROIEKTUAREN BALANTZE EKONOMIKOA (jarduera bakoitzeko)

Gastuak	
Hizlarien/irakasleen gastuak	
Ordainsariak	
Ostatua	
Garraioa	
Besterik (zehaztu)	
Proiektuan baino ez diharduten langileen gastuak	
Ordainsariak	
Ostatua	
Garraioa	
Besterik (zehaztu)	
Material-gastuak	
Fotokopiak	
Material didaktikoak (liburuak, ikus-entzunezkoak...)	
Material-alkairua	
Beste material batzuk (zehaztu)	
Publizitatea	
Diseinuak eta logotipoak	
Horma-irudiak eta liburuxkak	
Prentsako eta irratiko iragarkiak	
Besterik (zehaztu)	
Jarduerak egiteko lokalak alokatzea	
Gastu arruntak	
Posta	
Telefonia eta faxa	
Besterik (zehaztu)	
Beste gastu batzuk (zehaztu)	
Gastuak guztira:	

2012ko otsailaren 17a, ostirala

Diru-sarrerak	
Emakunderen diru-laguntza	
Beste zenbait erakunderen ekarpena	
Eusko Jaurlaritza	
Foru Aldundia	
Udala	
Beste batzuk (zehaztu)	
Bazkideen kuotak	
Parte hartzaileen ekarpena	
Besterik (zehaztu)	
Diru-sarrerak guztira:	

Proiektua betetzen duen pertsona/entitatearen datuak:

Harremanetarako telefonoa:

Posta elektronikoa:

Erakundearen ordezkariaren sinadura